

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda

Iragarki hau argitaratzen denetik aurrera hamabost egunez egongo da jendaurrean trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda, interesdunek aztertu eta, egoki iritziz gero, erreklamazioak aurkez ditzaten.

Hamabost egun baliiodun horietan trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko errolda dela-eta alegaziorik aurkezten ez bada, kobratzeko moduan jarriko da.

2020ko martxoaren 1etik apirilaren 30era bitarteko egun baliiodunetan, bi horiek barne, ordaindu ahal izango da, borondatezko epean, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga, 2020koa.

Zerga horren eraginpekoek udalaren diruzaintzan ordaindu ahal izango dute, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Adierazitako epea igarotakoan administrazio premiamendu bidez kobratzeko prozedurari hasiera emango zaio, indarrean dagoen Zergabilketarako Arautegi Orokorrean ezarritako xedapenei jarraituz, eta ordaindu ez diren kuotei ehuneko bosteko errekaruarekin kobratuko dira. Errekargu hau luzapenaren errekaruarekin bateragarria da.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2020ko urtarrilaren 29a

*Alkatea*

**ERNESTO SAINZ LANCHARES**